

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko irakasle eta ikasle ohiak irabazle Lekeitioko 37. Euskal Zinema Bileran

2014/12/01

Aitor Arregi Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko irakaslearen *Zarautzen erosi zuen* filmak irabazi ditu Lekeitioko 37. Euskal Zine Bilerako sari nagusia eta zuzendari onenaren saria.

Gainera, gradu horretako 4. mailako ikasle ohiak egindako bi lanek ere jaso dituzte sariak: *Anonymous* eta *Positibatzer*a film laburrek

Hala, Ainhoa Garcia, Odei Esnaola, Janire Zubizarreta, Ander Larrañaga eta Andrea Lopetegi ikasle ohiak osatutako taldeak irabazi du, *Anonymous* izeneko film laburrekin, Lekeitioko lehiaketako ekoizpen saria, amateur atalean. Bestalde, Gazte 22 atalean, saria irabazi dute Itsaso Etxebarria, Amaia Badiola, Itsasne Bermudez, Maite Salaberria eta Maria Aierbe ikasle ohiak *Positibatzer*a lanarekin. Bi film horiek iazko ikasturtean eginda daude, Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 4. mailako *Proiektua: film laburra* izeneko materialian.



Aurtengo irabazleak. (Argazkia: Gari Garaialde. Bostok Photo).

Zarautzen erosi zuen, Aitor Arregi. (Trailerra).